

Berrigara

BERGARA / Eguena / 2005eko irailaren 8a

638. zenbakia

HIRIGINTZA/ Hasierako egitasmoan zehazten zen azpiko garajea egiteko aukera baztertu egin du Udalak

Domingo Irala kaleko urbanizazioari ekingo dio Udalak, aspaldiko asmoari eutsita

EDU MENDIBIL

Urtea amaitu baino lehen Domingo Irala kalea urbanizatzeko proiektuari ekin nahi dio Udalak. Hala ere, oraindik Barrenkaletik Irala kalera ematen duten hainbat etxetako jabeekin negoziatu beharko du Udalak.

Urtea amaitu baino lehen Domingo Irala kalea urbanizatzeko proiektuari ekin nahi dio Udalak. Hala ere, oraindik Barrenkaletik Irala kalera ematen duten hainbat etxetako jabeekin negoziatu beharko du Udalak.

Aspaldiko proiektua da Domingo Irala kalea urbanizatzeari. Hain zuzen ere, 2001eko azaroan atera zuen Udalak proiektua lehiaketara. BEB arkitektoek (Xabier eta Iñaki Berasategi anaiek eta Eli Enak) irabazi zuten Udalak deitutako lehiaketa, baina proiektua atzeratzen joan da.

Orain, Udalak hasierako egitasmoari eutsi nahi dio. Hala ere, hainbat aldaketa izango dira BEBek egindako aurreneko proiektuan. Horrela, Domingo Irala kalearen azpian aparkale-

kua egitea zehazten zen. Telefonica parean sarrera eta Irizar kalean, Gaspar jatetxearen inguruan, irteera izan behar zuen azpiko garaje hori egiteko aukera baztertu egin du Udalak.

OINEZKOEI LEHENTASUNA

Domingo Irala kalearen itxuraldaketak eragina izango du trafikoan. Kaleak oinezkoendako zein autoendako izaten jarraituko badu ere, behin proiektua betetzen denean, autoek ordu jakin batzuetan bakarrik erabili ahal

2001eko azaroan atera zuen Udalak Domingo Irala kaleko proiektua lehiaketara

izango dute kalea eta aparkatzeko aukerarik ez da egongo. Zuhaitzak eta bestelako apaingarriak jarriko dituzte kale osoan. Proiektuak hartzen duen lur zati gehie-



Proiektua betetzen denean, autoek ordu jakin batzuetan bakarrik erabili ahal izango dute kalea.

BERRIGARA

na Udalarena bada ere, Udalak hainbat jabeekin negoziatu beharko du proiektuarekin hasi baino lehen. Alkatearen arabera, datozen asteotan inplikaturako

jabeekin akordioa lortzea da helburua. Lanak urtea amaitu baino lehen hasi nahi dituzte.

BEB arkitektoek behin betiko proiektua lantzen dutenean jakin-

go da aurrekontua zenbatekoa den. Orduan aterako da lehiaketaren adjudikazioa. Udalak Jaur-laritzako Izartu programaren bitartez finantzatuko du lanen %30.



San Matei eguna Uberan

Joan den domekan San Matei eguna ospatu zuten Uberan. Ermitan meza entzun ostean, auzoko haurrek dantza saioa eskaini zuten Erkaitz eta Aritz trikitilarien laguntzaz. Ondoren, txorizoa eta edatekoa hartu bitartean bolo txapelketa izan zen. Azkenik, giro ederrean bazkaldu zuten auzotarrek.

San Joxepekoak hasi dira Kultur Hamabostaldia gertatzen

E.M.

San Joxepe erretiratuen elkar-teak laster ekingo dio ikasturte berriari. Kultur Hamabostaldia urriaren 17tik 29ra ospatuko da eta dagoeneko hasi dira zuzendaritzako kideak programazioa zehazten. Aurtengoa Hamabostaldiaren hamargarrena ekitaldia izango da.

ORDENAGAILU BERRIAK

Bestalde, informatika gelan ordenagailu berriak jarri dituzte La Caixaren laguntzaz. Laster hasiko dira ikastaroekin.



Erretiratuen egoitzako informatika gela.

BERRIGARA

OSASUNA/ Besteak beste, etxean gaixo psikikoren bat duten senideei aholkularitza zerbitzua eskaintzen dio Agifese

Laguntzaileak lortzeko deia egin du buruko gaixoen familiarren Agifes elkarteak

E.M.

Ekainean sentsibilizazio kanpaina egin ondoren, gaixo psikikoen eta haien familiarren Agifes elkarteak laguntzaileak lortzeko deia egin du. Orain dela bi urte hasi zen Debagoieneko Agifes elkarteak Bergaran lanean.

Etxean gaixo psikikoren bat duten senideei aholkularitza zerbitzua eskaintzen dio Agifese. Hain zuzen ere, buruko gaixotasunak jasaten dituzten pertsonen eta beraien familiarren bidez kalitatea hobetzea du helburu elkarteak. Aldi berean, buruko gaixotasunen gainean gizartearen diren aurreiritziekin apurtu nahi dute, gaixoen gizarteratzea bultzatuz.

LAGUNTZAILEEN FALTAN

Esan bezala, laguntzaileak lortzeko deia egin berri dute Agifeseko kideek: "Gure lan taldean parte hartzeko jendea behar dugu: familiarrak, langileak, ikasleak..., denek laguntza eman deza-

kete. Bergara eta inguruko elkarteetan laguntza eta inplikazioa lortu nahi dugu, beraiekin elkarlanean aritzeko. Bidearen zati bat eginga daukagu, baina oraindik bide luzea egiteko dago. Guztion laguntzarekin eta ulermenarekin aurrera egin ahal izango dugu. Horretarako beharrezkoa da gai honen inguruan naturaltasun osoz hitz egin ahal izatea".

ATEAK ZABALIK

Agifes elkarteak Irizar jauregiko lehen solairuan zabaldu zuen bulegoa 2004ko urtarrilean. Besteak beste, gaixoen senideei zuzendutako saiok antolatzen dituzte. Agifeseko arduradunek azpimarratzen dutenez, elkartera hurbiltzeko interesa dutenek Barrenkaleko 33ko bulegora jo dezakete. Elkartearen telefono zenbakia 943 76 98 56 duzue. Era berean, edozein argibidetarako bergara@agifes.org posta elektronikoa jarri dute.

Bestalde, urrian ospatuko den Buru Gaixotasunaren Eguna ospatzeko hainbat ekintza antolatuko dituztela aurreratu dute Agifeseko arduradunek.



Irizar jauregiko lehen solairuan dago Debagoieneko Agifeseko bulegoa.



Ikasturte berria Helduen Eskolan

Helduen Eskolan ikasturte berria hasiko dute hurrengo astean. Matrikula epea martitzenera arte, irailaren 13ra arte dago zabalik, aste barruan 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Besteak beste, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, ingelesa eta euskara (oinarrizko maila) eta atzeritarrei zuzendutako gazte-lerak eskaintzen dituzte Irizar jauregian. Iaz 180 ikasle inguru aritu ziren HHI-EPA eskolan. Argibideak 943 76 44 52 telefono zenbakian.

LABUR

8.470 zenbakia sarituta Osintxuko Kofraixetan

Osintxuko Kofraixetan egingo dako zozketan 8.470 izan da saritutako zenbakia. Txartelaren jabeak bi lagunendako astebeteko bidaiari Mallorcara eskuratuko du. Irabazleak 30 eguneko epea dauka saria jasotzeko.

1948an jaiotako bergararren afaria urriaren 1ean

1948an jaiotako bergararrek urteko ospakizuna egingo dute datorren urriaren 1ean. Zabalda jatetxean elkartzeko dira afaltzeko, 21:30ean. Izenematea (47 euro) Euskadiko Kutxan zabalduko kontuan egin daiteke. Afarira joateko autobusa aterako da frontotik, 21:00etan.

Alderdi Egunerako autobus txartelak Batzokian

Bergarako EAJK aditzera eman duenez, hurrengo irailaren 25ean ospatuko den Alderdi Egunerako autobusa aterako da Bergaratik, 09:00etan. Autobuserako zein Alderdi Egunerako bazkarirako txartelak salgai daude Batzokian, 5 euro eta 20 euroren truke, hurrenez hurren.

Begirale lan-poltsa osatu nahi du Jardun elkarteak

Bergarako Jardun elkarteak 2005/06 ikasturterako begirale lan-poltsa osatu nahi du, aste bukaeretan lan egiteko. Beharrezkoa izango da euskaraz ongi jakitea eta, horrez gain, begirale titulua edukitzea, ikasketak eta esperientzia baloratuko dituzte. Izenematea irailaren 12ra arte izango da zabalik. Argibideak 943 76 36 61 telefonoan.

BERRIGARAN TELEFONO BERRIA



943 25 05 02

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

FRANTSES IRAKASKUNTZA



Mizpildi 3, 1. ezkerria • BERGARA

2005-2006 ikasturtea

Ikastaroaren hasiera:
urriaren 3a

Izenematea: irailaren 28ra arte
Informazio gehiago: 10:00-12:00
eta 18:00-20:00

943.76.30.55

JAIK/ Bandera eramaileak behar dituzte danborradarako

Jaiekin hasteko San Martineko feria zapatuan

E.M.

Aste bukaera honetatik aurrera San Martin jaietan murgiltzeko aukera izango da. Zapatuan, feria eta odolosteen dastatzea izango dira plazan. Bestalde, nagusien danborradan parte hartzeko bandera eramaileak lortzeko deialdia egin du Udalak.

Aurten, nobedade gisa, euskal arropekin, erromeriako jantziekin aterako dira bandera eramaileak, eta neskak zein mutilak izan daitezke bandera eramaileak. Interesa dutenek kultura etxera edo 943 77 91 58 telefono zenbakira jo dezakete. Eguenean, nagusien danborradan, Aritzeta, Artatse, Lasai-Toki, San Joxepe, Sustarberri, Urdinak eta Zuloa elkarteek hartuko dute parte.

Esan bezala, girorik ez da faltako egunotan. Zapatuan, barazki, fruitu, gazta eta lore moztuen lehiaketa eta odolosteen dastatzea

egin da goizean zehar, San Martin plazan.

JAIMA ETA TXOMINGEROAK

Pazkoetan egin bezala, herriko koadrilek San Martinetako egitarauan hartu dute parte. Horrela, txomingeroen bazkaria iragarri dute San Martin plazan, hilaren 17rako. Mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte eta norberak eraman beharko du jatekoa eta edaria. Txomingero ondoen mozorrotzen denarentzat saria izango da: txomingeroen kit berezia eskuratuko du. Bazkalondan euskal kantu zaharrak abestuko dira Iñaki Labaka kantariarekin, eta bertso-txistek Eusebio Lasarterekin.

Egun berean, eguerdian, jaima jarriko dute Munibe plazan. Afrika aldeko doinuak eta beste-lako kontuak izango dira protagonista.

KOFRADIKIDE BERRIAK HILAREN 18AN

Bestalde, Erreileno eta Tostoiien lagunek Kofradiako kapitulua ospatuko dute datorren hilaren 18an. Aurtengoa Kofradiak egingen duen seigarren kapitulua izango da. Udaletxeko Areto Nagusian egingo duten ekitaldian Jose Mari Zezeaga pilotaria, Natalio Juaristi ezaguna, Bergarako Odol Emaileen Elkarte eta Alai-Taldea izendatuko dituzte Kofradiakide berriak.



Nagusien danborradan zazpi elkartek hartuko dute parte egunean. Bandera eramaileak behar dituzte.

BERRIGARA



San Martin egunean sokamuturra izango da, 09:00etan hasita.

BERRIGARA

Natalio Juaristi, odol emaiak, Zezeaga eta Alai Taldea, Erreileno eta Tostoiien kofradiakide berriak

San Martin jaietako egitaraua

Irailak 9, ostirala

19:30. Bikoteen Dantza Askatuko XXI. Txapelketa. XXI. Txapelketa, Moises Azpiauren oroimenez, Bergarako Udal Pilotalekuan, Abarka eta Moises Azpiazu dantza taldeek antolatuta.

Irailak 10, larunbata

10:00. Barazki, fruitu, gazta eta lore moztuen lehiaketa San Martin plazan.

11:00. Jardun elkarteko trikitilari taldearekin kalejira.

11:00. Bergarako odolosteen dastatzea San Martin plazan, odolostek prestatu eta eskainiko die herriko gendeari Jon Leturia, Luis Mari Rezola eta Pello Urtzelai harakinei eta Giokelari esker. Laguntzaileak: Xamat dantza taldea eta Aritzeta abesbatza.

11:30. Lutxurdio eta Aitziber trikitilariak.

13:00. Aitor Mendiluze eta Joxe Agirre bertsolariak San Martin plazan.

13:30. Sari banaketa.

17:30. Gorritiren animaliekin umeendako jolasak.

Irailak 15, osteguna

19:00. Gaztetxoendako krosa, Komenio, San Pedro, Bidekurutzeta ibilbidearekin, San Martin plazatik irtenda.

19:30. Pilota partiduak Udal Pilotalekuan Bergara Hiria txapelketako errebantxa.

22:30. Nagusien danborradaren irteera, Udal Musika Bandak lagunduta. Ibilbidea: Kultura etxea, Masterreka, Infernukua, Ibargarai, Ramon Maria Lili, Bidekurutzeta eta San Martin plaza.

Ondoren Gaubela taldearekin dantzaldia San Martin plazan.

Irailak 16, ostirala

08:30. Diana Udal Txistulari Bandarekin.

09:00. Sokamuturra.

11:00. Meza Nagusia San Pedro elizan. Udal Korporazioa joango da, Udal Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak lagunduta.

11:15. Kalejira Udal Musika Bandarekin.

12:30. Bandaren kontzertua San Martin plazan.

- Gipuzkoako Futbol Federazioaren ereserkia (A. Gz. Chirlaque).

- Balkan dreams (K. Schoonenbeek).

- Conquest of paradise (Vangelis).

- Ballet parisien. Suitea.

(J. Offenbach).

- San Martin. Euskal estanpak

(M.Gz. Bastida).

18:00. Haurren danborrada, Musika Eskolako Bandak lagunduta. Ibilbidea: Kultura etxea, Masterreka, Infernukua, Ibargarai, Ramon Maria Lili, Bidekurutzeta eta San Martin plaza. Danborradan Aranzadi, Mariaren Lagundia eta San Martin ikastetxeetako ikasleek hartuko dute parte.

22:30. Trapu zaharra antzerki taldearen eskutik Aterpea antzezlan, Munibe plazan.

22:30. Suzko erruberak Agorrosinen.

23:00. Patxi Perez eta konpainia taldearekin erromeria.

Irailak 17, larunbata

12:00 - 14:00. Jaima Munibe plazan.

Bertan perkusio eta dantza afrikarrak, zirkuko teknikak... erakutsiko dituzte.

14:30. Txomingeroen bazkaria San Martin plazan. Jatekoa eta edatekoa

norberak ekarri beharko du. Bazkal ondian euskal kantu zaharrak Iñaki Labaka kantariarekin, eta bertso-txistek Eusebio Lasarterekin.

16:30 - 18:30. Eskola alternatiboak Munibe plazako jaiman.

17:00. Doneztebeko Beti-Alai txaranga kaleak alaituko ditu gauera arte.

18:45. Bonba japoniarrak haurrentzat San Martin Agirre plazan.

19:15. Bergarako erraldoi, kiliki eta buruhandien konpartsaren kalejira, Udal Txistulari Bandak eta Kobok Bergarako gaita joleek lagunduta.

23:00. Tuboeskapin eta Makala Sound System taldeak zuzenean + DJ saioa, San Martin plazan.

Irailak 18, igandea

09:00. Ageriko pintura lehiaketa, Beart elkarteak antolatuta.

09:00. Argazki rallya, Pol-Pol argazki elkarteak antolatuta.

09:30-12:15. Erreileno eta tostoiien kofradiako kapitulua.

10:00. 40. San Martin Txirrindulari Lasterketa. Lehendakari Txapelketa, 19-20 urte dituztenentzat. Irteera eta helmuga San Lorentzo auzoan izango dira.

ESKUBALOIA/ Gazte mailan bi talde izango dira; infantil mailakoak osatzeko deia

Senior mailako eskubaloi talde bakarra aurten

EDU MENDIBIL

Bergara KEko eskubaloi sailak senior mailako mutilen talde bakarra izango du hastear den denboraldian. Euskadiko Ligan maila galdu ondoren eta jokalarien faltan, talde bakarra osatu dute. Urrian hasiko dute denboraldia. Beste lau talde izango ditu eskubaloi sailak.

Lander Juaristi eta Josetxo Muniategi izango dira senior mailako taldeko entrenatzaileak. Gipuzkoako Ligan lehiatuko dira, urritik aurrera. Esan bezala, jokalarien falta eta iaz Euskadiko Ligan lehiatu zen taldea mailaz jaitea izan da talde bakarra osatzeko arrazoia. 18-20 jokalari osatuko dute taldea. Gehienak lehengo urtean Gipuzkoako Ligan ibilitakoak dira, Muniategirekin. Euskadiko Ligan ibili zen taldetik bost jokalari jarraitzen dute.

Era berean, gazte mailan beste bi talde izango ditu eskubaloi sailak. Neskena Ander Alvarezek gidatuko du eta mutilekin Xabier Lijo eta Raul Pozo arituko dira.



BERRIGARA

Senior mailako taldeak urrian ekingo dio denboraldiari.

12-13 URTEKO GAZTETXOEI DEIA

Bestalde, infantil mailan mutilen eta nesken taldeak osatzea da eskubaloi saileko arduradunen asmoa. Beraz, 12-13 urte dauzkaten gaztetxoek kiroldegira jo dezakete eguazten eta egubakoitzean, 18:30ean. Eskubaloiaren jokatutako nahi duten gaztetxoei dei egiten diete arduradunek.

LAGUNARTEKO PARTIDUAK ASTEBURUAN

Aste bukaeran lagunarteko partiduak izango dira kiroldegian: bihar, egubakoitzea, senior mailakoak Aloñaren aurka jokatuko du, 12:00etan. Zapatuan, gazte mailako mutilek eta senior mailakoek Urolaren aurka neurtuko dituzte indarrak Labegaraian, 16:30ean hasita.

Bergara Hiriko finalen errebantxak eguenean Udal Pilotalekuan

E.M.

Eguenean, hilaren 15ean, Bergara Hiria Txapelketako finalen errebantxa partiduak jokatuko dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean: 22 urtetik azpiko mailan, Renobalesek eta Iraolak Apeztxea eta Diez de Ultzurrunen aurka jokatuko dute. Jarraian, nagusien mailan, Diazek eta Okiñenak Berasaluze eta Apraizen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Joan den maiatzaren 16an jokatutako finaletan, Diazek eta Okiñenak 22-13 irabazi zieten Berasaluzeri eta Apraizi. Apeztxea eta Diez de Ultzurrun emaitza berarekin nagusitu ziren.



BERRIGARA

Irudian, Bergara Hiriko finalistak, maiatzeko finalen ostean.

LABUR

Apraizekin bikotea osatuz, Antiguoko pilota txapelketa irabazi du Ander Muguruzak

Ander Muguruza pilotari bergararrak Antiguoko txapelketa eskuratu zuen joan den abuztuaren 28an. Finalean, Muguruzak eta Apraizek 22-11 irabazi zieten Lasari eta Bengoetxeari.

Hamabi bikote izan dira lehiatzaile Antiguoko txapelketan. Joan den urtean finalerdietara iritsi zen Ander Muguruza. Antiguoko bikote izan duen Apraiz Bergaran izango da eguenean, Bergara Hiriko finalean errebantxan.

Hainbat ikastaro antolatu ditu Udaleko Kirol Zerbitzuak denboraldi berrirako

Kirol Zerbitzuak hainbat kirol ikastaro iragarri ditu. Hain zuzen ere, spinning, aerobik, saioan egoteko gimnasia, tenis, yoga eta pilates ikastaroak izango dira denboraldi berrian. Aerobikaren kasuan, ikastaroa 16 urtetik gorakoentzako da. Hala ere, 12-16 urte bitarteko gazteentzako *aerogazte* ikastaroa izango da. Gainerako ikastaroetan gutxienez 14 urte izatea beharrezkoa da. Interesatuak Kirol Zerbitzura edo 943 77 91 67 telefonora jo dezakete.

Oilagorrek antolatuta, Bergarako ehiza txapelketa jokatuko da bihar Zanbranan

Oilagorra elkarteak antolatuta, bihar, irailak 9, Bergarako Ehiza Txapelketa jokatuko da Zanbranan, Araban. Ehiza txapelketa 08:30etik 13:00etara jokatuko da eta txakur bakarrarekin egin ahal izango da ehizan. Joan den urteko ekitaldian herriko 26 ehiztari jardun zuten lehiatzaile.



Anoetarako autobus txartelak, 2 eurotan

Realeko partiduetara autobusez joaten diren zaleek bidaia bakoitzeko bi euro ordaindu beharko dituzte aurrerantzean. Autobus zerbitzuan gastatzen den diru kopurua murriztea da Realaren helburua. Hori dela eta, 2 euroko prezioa ezarri dute. Domekan 17:30ean aterako da Real-Alaves partidura joateko autobusa. Realak Anoetan jokatzen duen bakoitzean, bost bat autobus ateratzen dira Bergaratik.

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

FUTBOLA/ Abel Maestre dugu mahoneroen entrenatzaile berria; 18 izango dira lehian ohorezko gazte mailan

Ohorezko gazte mailako futbol taldeak Eibartarrak hartuko du bihar, Ipintzan

E.M.

Azken denboraldian mailaz igo ondoren, ohorezko gazte mailako futbol taldeak ligako lehen partidua izango zapatuan, hilaren 10ean, Ipintzan. Mahoneroek Eibartarrak taldeak hartuko dute, 18:00etan.

Poliki-poliki badoaz futbol taldeak abian jartzen. Zapatuan ohorezko gazte mailako taldearen txanda izango da. Joan den denboraldian mailaz igo ondoren, aurten aurkari gogorragoak izango dituzte. 18 talde izango dira lehian (multzo bakarria dago) eta, besteak beste, Sporting Herrera, Ordizia, Anaitasuna, Hondarribia, Urola edo Irungo Mariño taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak bergararrek. Debagoenari dagokionez, Aretxaba-

leta, Arrasate eta Bergara dira ordezkari bakarrak.

Abel Maestre izango da Bergarako entrenatzaile berria, David Lopez de Abetxuko eta Jose Ramon Beristain ordezkatzuz.

ERREGIONAL MAILAKO, LEGAZPIN

Erregional mailako futbol taldeak Legazpiko txapelketako finala jokatu dute bihar, zapatua, Ilintxaren aurka, 18:30ean. Josu Zubiaren mutilek 2-1 irabazi zioten Urolari finalerdietan. Iñaki Corrales eta Martin Ibañezek egin zituzten mahoneroen aldeko golak. Beste finalerdian Ilintxak 4-2 irabazi zion Gaztetxe taldeari.

Legazpiko txapelketaren ostean, Bergarako liga hasiko du hurrengo aste bukaeran. Lehenbiziko partidua Amara Berri taldearen aurka jokatu dute Agorrosinen.



Argazkian, joan den denboraldian ohorezko gazte mailara igoera lortu zuen taldea.

BERRIGARA



Areto futboleko txapelketa: 18 talde lehian

Labegarrietako areto futboleko txapelketan 18 talde izango dira lehian aurtengo ekitaldian. Martitzenean batzarra izan zuten taldeetako ordezkariak etxean, txapelketaren nondik norakoak zehazteko. Aurtengoa txapelketaren 20. ekitaldia izango da. Iaz baino 14 talde gutxiago daude aurten. Lehen jardunaldia irailaren 24an eta 25ean jokatu da.

Antxon Hernandezek irabazi zuen Lokatzako Tourreko porra

E.M.

Antxon Hernandez 16 urteko gazteak eraman zuen Lokatzak uztailan antolatutako Tourreko porra. Guztira, 359 zerrenda jaso zituzten Lokatzakoek eta, esan bezala, Antxona izan zen puntu gehien jaso zituena. 3.590 euroko saria eraman zuen.

Tourreko porran inoiz baino partaide gehiago izan dira aurten: 359 zerrenda osatu zituzten txirringularitza-zaleek eta azken egunera arte lehia bizia egon zen. Frantziako lasterketan urtero izaten diren sorpresak erabakigarriak izaten dira. Antxon Hernandezek aitortu zuenez, Pereiro eta Moreau zerrendan jartzeak eman zion garaipena. 1.269 puntu lortu zituen Antxonek. Biga-



Argazkian, Tourreko porran saritutakoak.

MIGURA

rren postuan San Donato Peña-koak geratu ziren, 1.263 punturekin. 1.795 euro jaso zituzten. Eta hirugarren saria (1.077 euro) Juan

Carlos Lazkanorentzat izan zen. Faroltxo gorria Bitxor Garitanok jaso zuen. 359 puntu lortu zituzten Papiro zerrendakoek.

Mujika
gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

943 76 20 61
BERGARA

Marrazketa eta pintura eskolak

M^a Paz Alustiza (irakaslea)
Zubieta • Tel.: 943 76 17 32

NAGUSIAK ETA GAZTEAK:
Irailaren 20tik aurrera. Eguna: Astearte eta ostegunetan.
Ordua: 18:30-20:00.

DANTZA/ Moises Azpiauren omenezko Dantza Solteko Txapelketa

Bergarako zazpi dantzarik hartuko dute parte barikuan Dantza Solteko Txapelketan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bihar, egubakoitza, jokatuko da Moises Azpiauren omenez Bikote Nagusientzako XXI. Dantza Txapelketa. Hamar bikotek jardungo dute dantzan eta dantzarietatik zazpi bergararrak izango dira. Txapelketa 19:30ean hasiko da, San Martin plazan.

Abarka dantza elkarteak antolatu du txapelketa Bergarako Udaren laguntzarekin.

Aurten 16 urtetik gorako hamar bikotek hartuko dute parte; horietatik hiru bergararrek osatutakoak izango dira eta beste bikote batean dantzarietako bat ere Bergarako da. Ibane Baseta, Mikel Igartua, Alex Torre, Janire Urbietia, Asier Ena, Maitte Lazkano eta Aitzol Ena dira, hain zuzen ere, dantzari bergararrak. Basetak eta Igartuak osatutako bikotea da txapelketako gazteena, 16na urte baitituzte.

Gainontzeko dantzariak Azkoitia, Hernani, Asteasu, Lazkao, Arama, Errenteria, Sestao eta Donostiakoak dira.

Jaialdia 19:30ean hasiko da, San Martin plazan, eta Estanga anai-arreben trikitixaren laguntzarekin fandango eta arin-arin bana dantzatuko dute bikote guztiek epaileen aurrean. Epaimahaia Euskal Dantzarien Biltzarrikidatutako hiru kidek osatuko dute: Karlos Sarriegik, Joxe Juan Ugaldek eta Salaberriak.

Lehenengo postuetan sailkatzen direnek honako sariak eskuratuko dituzte: Lehenengo bikoteak garaikurrak, txapela, zapia eta 180 euro. Bigarrenak, garaikurrak eta 170 euro eta hirugarrenak garaikurrak eta 160 euro. Gainontzekoek ere diru sariak jasoko dituzte. Bestalde, garaikur berezia egongo da herriko bikote onenarentzat, Moises Azpiauren sendiak eskainita.

ENA ETA LAZKANO TXAPELDUN

Aipatzeko da Asier Ena eta Maitte Lazkano bergararrek osatutako bikotea txapelkun izan zela domekan Donostiako Konstituzio



XABIER LAZKANO

Maite Lazkanok eta Asier Enak dantza solteko hainbat txapelketa irabazi dituzte aurten; irudian, Segurakoa.

plazan jokatu zen Dantza Solteko Txapelketan. Bikoteak txapela eta zapiak gain, garaikurra eta 350 euro jaso zituen. Txapelketa

horretan bertan Aitzol Ena bergararra hirugarren tokian sailkatu zen Miren Illarreta donostiarrarekin bikotea osatuz.

Donostiako erakustaldiaren ostean, herrian paper ona egiten saiaturko dira dantzari hauek gainontzeko bergararrekin batera.

Bikote parte-hartzaileak

IZEN-ABIZENAK

- Ibane Baseta/Mikel Igartua
- Edurne Azpitarte/Jon Ander Azpitarte
- Xabier Segura/Liorni Martiarena
- Alex Torre/Janire Urbietia
- Mikel Mujika/Nagore Narbarte
- Irati Imaz/Joseba Apaolaza
- Nerea Vesga/Eneko Gil
- Karlos De las Heras/Oroitz Bilbao
- Asier Ena/Maitte Lazkano
- Aitzol Ena/Miren Illarreta

HERRIA

Bergara
Azkoitia
Hernani
Bergara
Asteasu
Lazkao/Arama
Errenteria
Sestao
Bergara
Bergara/Donostia

LABUR

Mari Fran Ereña eibartarraren lanak Nahikari tabernan

Irailaren 2an inauguratuta, Mari Fran Ereña margolari eibartarraren erakusketa egongo da ikusgai Nahikari tabernan irailean barrena. Guztira, 12 lan daude bertan zintzilikatuta, eta hainbat gailandu ditu. Ereñak 47 urte ditu eta orain dela gutxi hasi zen pintura ikasten Eibariko Arrate Kultur Elkarte eskolan. Bertan olio eta marrazketa teknikak landu baditu ere, akuarela du gustuko, eta teknika hori bere kasa lantzen dihardu.

80ko hamarkadako musika elektronikoa gaur Ziripoten

Bihar egubakoitza, irailak 6, 80ko hamarkadako musika elektronikoa entzungai izango da Ziripot tabernan. DJ KRC Samuk eskainiko du emanaldia. Beraz, 80ko donu elektronikoei gozatuko aukera izango da. Saioa 23:00etan hasiko da.

Bestalde, San Martin berperarako, hilaren 15erako, beste DJ emanaldi bat iragarri dute. Hain zuzen ere, DJ Ene eta DJ Alkate arituko dira egun horretan, 23:00etan.

Toribio Jauregiren argazki erakusketa azaroan Aroztegin

Aroztegiko erakusketa aretoa hutsik dago orain, baina hurrengo erakusketa gertatzen dihardute. Toribio Jauregi argazkilaria bergararren lanak izango dira ikusgai. Besteak beste, pilotaren gaineko argazkiak. Data oraindik zehazteke badago ere, azaroan izango dela aurreratu digute. Bestalde, Udazken Kultur Alaren baitan hainbat hitzaldi eta formatu txiki-kultura emanaldiak ere ikusi eta entzun ahal izango dira auzo ki Aroztegiko aretoan.

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

**Aldoka
Maldoka**


TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

Dixula

**BOKATAK
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

MINGAINARITIRAKA



Ana Parra

ANEZKA ARROPA DENDAKOA

Arropa denda izateaz gain, Anezka jantzigintza akademia ere bada. Nork bere arropak diseinatzen eta josten ikasteko aukera eskaintzen du Anak. Orain dela 30 urte hasi zen lanbide horretan.

Jantzigintza akademian ikasle asko izaten dituzu?

Orain hamabost bat ditut; dena dela, orain dela 20-30 urte 60 ikaslelik gora izaten nituen.

Nik justu botoi bat josten asmatuko nuke.

Hori oso normala da, ulertzen dut; gizartea asko aldatu da eta 30 urtetik beherako jendeak bestelako gauzak ikasteari eman dio lehentasuna.

Geroago eta jostun gutxiago dago. Zergatik?

Arrazoi asko egon daiteke; dena dela, arrazoi garrantzitsuena da geroago eta aukera handiagoa dagoela arroparen munduan eta oso arropa merkea erosteko aukera dagoela. Barrenak hartzeaz gain, konponketa gutxi egiten da gaur egun.

Zeure arropak zeuk diseinatzen dituzu?

Bai; gainera, erosten ditudan gutxiak ere konpondu egin behar izaten ditut.

Zer behar da diseinugile eta jostun ona izateko?

Behatzailea izatea, oihal guztiak ondo ezagutzea, lan egiten duzun herriko kultura ezagutzea eta asko praktikatzea.

Moda jarraitzen duzu?

Bai, izugarri gustatzen zait; orain, esaterako, Cibelesen egon naiz.

Gustuko diseinugile bat?

Balentziaga maisu handia izan zen; Adolfo Dominguez eta Mercedes De Miguel bilbotarra ere asko gustatzen zaizkit.

Neguko ala udako arropa?

Diseinugile moduan, negukoa, zalantza barik; izan ere, askoz aberatsagoa da bai diseinuari bai oihalei dagokienez ere.

Abuztuan non ibili zara?

Espainian zehar, barrualdean eta kostaldean.

Opor osteko sindromerik bai?

Batere ez, oso gustuko dut nire lana.

Zer da, bada, gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Gehien, irakastea; gutxien, berriz, diru kontuak. Eskerrak nire ahizpari!

Amets bat?

Nire ikasleen diseinuak Cibelesen aurkeztea.

AINZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

IÑAKI PADILLA

33 URTE / SALMENTA BURUA / CELAYA (MEXIKO)

“Nolabait, euskal nortasuna mantentzen da Celayan, euskaldunek sortutako hiria da eta”

AINZANE IRIZAR

Ia bi urte daramatza Iñaki Padilla bergararrak Mexikon bizi izaten. Antzuolako Elay enpresak hantxe duen lantegian dihardu lanean; lantegi horretako salmenta burua da eta Mexiko eta AEBak hornitzen dituzte Celayako lantegitik.

Baina, egia esan, ez zen lana izan Iñaki Padilla Mexikora bizi izatera joateko arrazoia, edo ez, behintzat, arrazoi bakarra. Izan ere, emaztea mexikarra da.

Bi seme-alaba dituzte: zaharrena Euskal Herrian jaiotakoa da, bi urte ditu eta Alex du izena. Txikiena, berriz, aurtengo maiatzean jaio zen eta izen bitxia du, benetan: Itzel. “Izen azteka da Itzel, nahiz eta ezin den ukatu kutsu euskalduna duenik, ezta?”, diosku Iñakik. Aita euskalduna izanda, zera adierazi digu Iñakik: “umeek euskal munduarekin harreman lantzen dugun heinean, euskal izaera jorratzeko aukera izango dutela espero dut”.

“Mexikarrak oso irekiak dira, euskaldunok baino askoz gehiago”

500.000 BIZTANLEKO HERRI TXIKIA

Celaya Mexiko Hiritik bi ordu eta erdira dago. Izenak pista txiki bat ematen digu, eta bai, halaxe da, euskaldunek sortutako hiria da Celaya. “Nolabait, euskal nortasuna mantentzen da Celayan; euskal presentzia badago oraindik, nahiz eta bigarren edo hirugarren belaunaldikoak izan hemengo euskaldun gehienak”, azaldu digu Iñakik. Euskaldunen elkarteak ere badituztela kontatu digu.

500.000 biztanle inguru ditu Celayak: “Mexikoko hiri gehienak askoz handiagoak direnez, eurendako oso hiri txikia da”, dio Iñakik. “Rancho deitzen diote eurek hiriari, txikia delako; Ber-


garak 15.000 biztanle dituela esanda, barre egiten digute”. Gureta-ko hiri oso handia den arren, hango bizimodua oso lasaia dela kontatu digu Iñaki Padillak.

Hasieratik oso ondo hartu zuten Celayan Iñaki: “Mexikarrak oso irekiak dira, euskaldunok baino askoz gehiago. Gainera, emaztea mexikarra denez, askoz errazagoa egin zitzaidan harremanak egitea eta hemengo bizimodura egokitzea”.

ETORKIZUNA: NORK DAKI?

Etorkizuna zela ikusten duen eta Euskal Herrira itzultzeko asmorik duten galdetuta, hona hemen Iñakiren erantzuna: “Hori galdetzea ere...! Oraindik gazteak gara, eta zeinek daki etorkizunak zer ekarriko digun. Jatorriari ezin uko egin, ezta?”.

Dena dela, elkarrizketaren beste momentu baten Iñakik kontatu digu Mexikora bizi izatera joan zirenean emazteak hilabeteak pasatu zituela Euskal Herrira itzuli nahian. Horrek harritu egin zuen Iñaki; izan ere, emaztea zen mexikarra eta Mexikon zeuden bizi izaten.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92



TERAPIA FAMILIARRA
(bikote eta banakako terapia)
PSIKOLOGIA

- HARREMAN ARAZOAK: bikotearekin, familiarekin edo kideekin
- UMEEN ETA NERABEEN ARAZOAK
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ESTRESA
- EKIKADURA ARAZOAK
- AUTOESTIMA


Miriam Mujika 676 61 70 55 • Ainhoa Basurko 676 70 37 25
Aurrera edifizioa • Urtzaile kalea-1

BONOFOTOA



Zein da San Blas auzoko baserri honen izena?

MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ITSASO GOENAGArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Itsaso!
Galderaren erantzun zuzena: **Domingo Irala kalean.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Betelu ura

1,5 litroko botila

0,24 €

40 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

ELGETA
**Neskatilak
Azurtzako
jaietan**

Erretratu hau 1959ko uztailearen 26an Azurtzan ateratakoa da. Santiago jaiak ospatzen zitzuzten bertan, eta neska talde honek bertara egin zuen ibilaldia. Bazkaria hartu eta egun osorako Azurtzara joateko ohitura zuten orduan. Jaietan ongi ibiltzea izaten zen euren asmoa, nahiz eta gaueko erromeriarako ez gelditu.

Gaur egun ere uztailearen amaieran oraindik ospatzen dira Santiago jaiak Elgetako auzo honetan. Orduan bezala bertsolari, dantzari zein herri kirol saiorik ez da falta izaten jaietan. Argazkiko batek baino gehiagok aurten egingo zuen jaietan Azurtzara buelta gazte garaiak gogoan.

Honako hauek dira Azurtzako arbolen azpian ateratako argazkian azaltzen diren neskatilen



izenak, ezkerretik eskumara: M^a Asun Agirre, M^a Carmen Sancho, M^a Tere Erostarbe, Elena Arotzena eta Begoña Telleria.

Argazkia: Elena Arotzena.

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituzu!

FARMAZIENTXANDA

- EGUBAKOITZA, 9**
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63
- ZAPATUA, 10**
ZABALA. Barrenkale 25. . . 943 76 16 87
- DOMEKA, 11**
ZABALA. Barrenkale 25. . . 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 12**
CAMACHO. Oxirondo 4. . . 943 76 11 74
- MARTITZENA, 13**
ZABALA. Barrenkale 25. . . 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 14**
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63
- EGUENA, 15**
ZABALA. Barrenkale 25. . . 943 76 16 87

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) . . . 943 03 54 00
 - Bergarako Udaltzaingoa . . . 943 77 91 06
 - Antzuolako Udaltzaingoa . . . 943 76 62 46
 - Ertzaintza . . . 943 53 47 20
 - Osasun etxea . . . 943 76 24 40
 - Asepeyo . . . 943 76 16 43
 - Pakea . . . 943 76 13 49
 - Angiozarko medikua . . . 943 78 90 27
 - Antzuolako medikua . . . 943 76 62 23
 - Odol emailleak . . . 943 76 16 24
 - Alkoholiko Anonimoak . . . 943 76 51 06

- GARRIAOK**
- Taxiak . . . 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea . . . 943 77 91 00
 - Antzuolako Udaletxea . . . 943 76 62 46
 - Udal Artxiboa . . . 943 77 91 32
 - Igerilekuak . . . 943 76 20 51
 - Kultura etxea . . . 943 77 91 58
 - Liburutegia . . . 943 77 91 62
 - Kiroldegia . . . 943 76 56 41
 - Mizpirualde egoitza . . . 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaletgia . . . 943 76 14 92
 - Erregistroa . . . 943 76 13 15
 - Jardun . . . 943 76 36 61
 - Postetxea . . . 943 76 26 85
 - Bedelkar . . . 943 76 04 68
 - Akulu AEK . . . 943 76 05 18
 - Udal Euskaltegia . . . 943 76 44 53
 - Bergarako notariotza . . . 943 76 10 73

MEZAK

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
 - San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK


- San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluez aurrean), Matxiategi (Mizpildiki okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiare, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00
eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiare, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Aurten ez da ohiko banderadun neskarik egongo danborradan. Zer iruditzen?



ANDRES GABILONDO

Antolatzaileek erabaki hori hartu dutenerako egokia izango da. Lehengoa ikusia dut eta berria ikusitakoan esango dut zein den hobe. Danborrada oso gustuko dut eta ez parte hartu arren beti ikusten dut.



UNAI AZKARATE

Berdin zait banderadunak egon edo ez; izan ere, danborrada ez zait askorik axola eta ez diot garrantzirik ematen. Parean tokatuz gero bakarrik ikusten dut. Ni txikitan bakarrik irten naiz danborra jotzen.



MAITE JUAN

Berdin zait, beste aukerarik ezean irtenbideren bat aurkitu behar. Orain arte ez naiz danborrada ikustera irten, umea zaratarekin beldurtu egiten delako; eta danborra jotzen ere sekula ez naiz joan.



MIREN ORMAZABAL

Lehenengo ohitura jarraitzeko nahiago nuke banderadunak egotea, baina inor prest ez badago aukera berria ere ez da txarra; base-rritar jantzita irtetea. Ni aurten ez naiz danborradan aterako.



ANA COLAS

Oso ongi iruditzen zait aldatzea; gona motzak, zaldi gainean joatea... Oso *kutrea* iruditzen zitzaidan. Beraz, banderadunak baserriarrez jantzita joatea egokia da. Danborrada gustuko dut, umeena batez ere.



JOSE FRANCISCO INTZA

Ongi iruditzen zait banderadun moduan irteteko aukera emakume zein gizonezkoei ematea. Danborrada gustuko dut eta ikusten sarritan egon izan naiz; baina ez dut sekula parte hartu.


TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZUBIETA KALEAN AUTOAK Auto gidari batek bere haserrea azaldu digu Zubietan kalean autoak gaizki aparkatuta egoten direlako. "Hainbat etxeren atarian autoak lagatzen dituzte aparkatuta errepedearen zati bat hartuz; eta autoak gurutzatzeko berez hestua den bidea gehiago hestutzen da", esan digu. /A.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Loti"



—Gure txikixa lotixa da demasa ta eskerrak orri.

JON IRAEGI

BESTEKEESANA

“ Tabernak 20-30 urte zeramatzan berriztapenik egin gabe eta itxura aldatu gabe, eta zerbait egin behar zela erabaki genuen. Hala, dekorazioa asko zaindu da: argiztapena, altzariak, osagarriak... tabernaren sarrera komunak ere guztiz aldatu dira eta oztopo arkitektonikoak desagerrarazi. Tabernaren itxura aldatzeaz gain, Deportibok beste aldaketa batzuk ere jasan ditu. Lehen aldiz terraza zerbitzua jarri dute Munibe plazan. Lehen sukaldea ere bageneukan, baina pintxoak egiteko bakarrik erabiltzen genuen. Orain ostera, pintxoaz gain ogitarte-koak eta anoak ere zerbitzatzeko ditugu tabernan eta terrazan”

JESUS MARI IGLESIAS / Deportivo tabernako arduraduna 'Zabalik'/05-09-01

BERAIEKDIÑO/ Lander Juaristi



Katrina

Emakume izena jaso du oraingoan ama lurra-uren urakan formako ostikoak, eta ez da Hego Ameriketako lurralde txiro baterantz abiatu, munduko super potentzia militar, ekonomiko, politikora baizik: Ameriketako Estatu Batuetara!

Katrinak, gezurra jarri du agerian. Neoliberalismoaren eta Estatu Batuetako indarraren lokatze-ko oinarria urperatu du. Irailaren 11n gertatua txikikeria da Katrinak eta Estatu Batuetako agintarien politikaren norabideak eragindakoarekin alderatuz.

Iaz Estatu Batuetako ejertzitoko ingeniariak New Orleansko harresiak indartu behar zirela ohartarazi zuten. 11 milioi dolar behar ziren; Estatu Batuek Iraken aste batean gastatzen dutena baino 100 aldiz gutxiago.

Absurdoaren antzezlan honek, inork uste ez zuen maila lortu du. Ustez munduko herrialde indartsuenak, hondamendiaren atarian, baliabiderik ez eta "bakoitzak salba dezala bere

ipurdia!" oihu eginez erantzun dio Katrinari! Ez naiz hasiko Kuba bezalako herriek, ama lurra-uren mehatxuei emandako erantzun paregabeekin alderatzen, baina Katrinak Estatu Batuetako errealtate neoliberal, New Orleansko pobrezia, azaleratu du eta urak jaisten diren

"Dolarraren inperioa sustengatzeko sakrifizio handiena da Katrinari eskainitakoa"

heinean milaka hildako ere azaleratu ditu. Estatu Batuetako biztanleriak bere agintarien ankerkeria pairatu du. Dolarraren inperioa sustengatzeko sakrifizio handiena da Katrinari eskainitakoa.

Paradoxikoa da Afganistan bezalako herrialde pirrikoko agintariak Estatu Batuei laguntzeko 100.000 dolar emateko prest azaltzea, kontuan izanik Bushen gobernuak Irakeko okupazioan minutu batean hori erabiltzen duena.

Europako Batasunari, aldiz, laguntza eskatu dio Etxe Zuriak. Botikinetan, ura eta 500.000 anoa janari; Irakeko soldadu estatu-batuarrek hiru egunetan jaten dutena.

Datuak datu, bakoitzak atera ditzala bere ondorioak.

HAUGIROA!

MINIMOA 13 °C
Martitzena, 6

MAXIMOA 36 °C
Zapatua, 3

ASTEKO EURIA (l/m²) 12 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 31	21 °C	16 °C	1,3 l/m ²
Eguena, 1	22 °C	18 °C	— l/m ²
Egubakoitza, 2	33 °C	16 °C	— l/m ²
Zapatua, 3	36 °C	16 °C	— l/m ²
Domeka, 4	28 °C	19 °C	0,2 l/m ²
Astelehena, 5	20 °C	18 °C	— l/m ²
Martitzena, 6	24 °C	13 °C	10,5 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 02
Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegia
Oihana Elortza
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Begarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Eguena / 2005eko irailaren 8a / 255. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Telleria etxeko larrugintzako materiala sailkatu eta berreskuratzen dabil Udala

AINZANE IRIZAR

Telleria larru ontze lantegiko materiala sailkatzen dihardu Udalak. Gero, material hori garbitu, sendatu eta biltegi baten gordeko dute. Oraingo astean bertan hasi da sailkatze lanetan Josu Tellabide etnologoa. Datorren urtean proiektua idatziko dute.

Makinak, larruzko materiala, bulegokoak... Denetik dago Telleria etxeko azkeneko solairuan. Material hori guztia katalogatu, garbitu, sendatu eta biltegi baten gordetzea da Udalaren asmoa. Aurretik, lantegi horretako dokumentazioa eta artxiboa sailkatu zuten Udalak; lan hori eginda dago.

Oraingo astean bertan hasi da katalogatze lanetan Josu Tellabide etnologoa. Ezagutzen du Josuk gure herria; izan ere, Zaharkinak proiektuan ere jardun zuen lanean.



Telleria lantegia izan zen eraikinean, larru ontzeko material ugari dago.

DIPUTAZIOAREN LAGUNTZAREKIN

Lan hori guztia egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du Udalak; 10.000 euro jaso ditu, hain zuzen ere. Diru horrekin eta Udalak jarritakoa-

rekin, material guztia sailkatu, garbitu eta sendatu egingo dute. Gero, datorren urteari begira, proiektua idatziko du Udalak, dituen asmoak gauzatzeko.

INTERPRETazio GUNEA

Udaleko arduradunen asmoa da daukaten material guztiarekin interpretazio gune bat sortzea; horrela, herritarrek ikusi ahal

izango lukete larru ontzearen prozesua, industria horren garrantzia eta historia herrian, egiten zituzten produktuak, eta abar. Gune edo museo txiki hori Telle-

Udalaren nahia da larru ontzearen gaineko interpretazio gune bat sortzea

ria etxeko beheko solairuan jar-tzea izango litzateke Udalaren asmoa, baina hori guztia zehazteke dago oraindik.

LARRU ONTzea ANTZUOLAN

Larru ontzearen industriak garrantzi handia izan zuen Antzuolan. XX. mende erdialdean izan zituen langile gehien industria honek; 1946an, esaterako, 79 langile zeuden herrian.

Telleria lantegiari dagokionez, berriz, aipatzekoa da *kurtiderixiaren* eraikina orain dela urte gutxi eraitsi zutela. Oraingo eraikinean, berriz, produktuak ekoizten zituzten, tailerra zegoen hantxe; gerrikoak, zapatak eta abar ekoizten zituzten.

Batez ere, gerra ostean izan zuten indar handia larru ontzearen industriak.

HERRITARREN HITZA / Joseba Lezeta • Kazetaria

Kalegoiko etxea

Hilabete eman dut, abuztu osoa, Antzuolara joateke. Eta Antzuolako kontuez jardun behar... Hala ere, nahikoa da pare bat lagunekin topo egitea gure herriko kontuen berri izateko. Zarautzen egon nintzen batekin eta Donostian beste batekin. Biek kontu bakarria aipatu zidaten, ez ei da beste konturik egon Antzuolan joan den hilabetean: Kalegoiko 10 zenbakiko etxea. Abuztu hasieran aldarmioak jarri eta bukaerarako kendu dituztela. Fatxada txukundu, goiko aldean adreiluak bistaratu eta ederra geratu omen da, ikusgarria.

Herriguneko lekurik politenetakoa da, egun, Kalegoi. Aipatutako etxean egindako obrarekin, berriz, are politagoa. Eta ez dut hori idatzi bertan bizitakoa naizelako. Ez du Kalegoiko etxeak Herriko Plazak eta Kalebarrenek adinako famarik, ezta tabernarik ere.

Soziedade bat bai orain, Danok Bat, hain justu. Baina, bere kale estua eta etxe zahar asko berritu ondoren,



"Itxura denez, gutxi ibiltzen gara antzuolarrok tabernetan"

badu bere izaera berezia. Badu, hala ere, batere gogoko ez dudana zerbait ere. Kontxaneko etxe pareko bidegurutzea. Bihurgune aldrebesa da, benetan.

Dena dela, bada Antzuolan irailera-ko eta urrirako kezkatzen nauen zerbait: taberna falta, hain zuzen ere. Azken jorraketaren ondoren, zapki taberna gelditu dira. Asko oraindik, zenbaiten ustez. Gutxi

niretzako, nahiz eta taberna gizona ez naizen.

Beranduko oporrak direla eta, laster itxi egingo dute haietakoren bat eta orduan kafea hartu ala mokauren bat egiteko ia aukera barik izango gara.

Ederra litzateke kafea hartzeko ere herritik ihes egin beharra. Itxura denez, gutxi ibiltzen gara antzuolarrok tabernetan. Biren atean itxi zituzten eta bat zabalduko ote duten zain gaude orain. Tabernarako afizioa bultzatzea politikoki zuzena ez da izango, baina zer edo zertan hasi beharra dugu.

LABUR

Uzarraga-Lizarraga errepidearen lanak lehiaketara

Antzuolako Udal Etxegintzak lehiaketa publikora ateratu ditu Uzarragarako zubitik Lizarraga auzorainoko errepidearen lanak. Baldintza pleguak ere onartu zituen, abuztuaren 23an egindako batzarrean. Lan horiek bost hilabetean bukatu beharko ditu esleipena eskuratzen duen enpresak, eta aurrez izango da. Irailaren 23ra arte izango dute enpresa erailkiztaileek proposamenak aurkezteko aukera.

IKASTAROAK

Ikastaro aukera zabala eskaini du Udalak ikasturte berriari begira

Kirola eta kultura, denetik dugu aukeran Udalak egindako ikastaro eskaintzan. Urrian hasten dira ikastaro gehienak; aerobik eta gimnasia ikastaroak, baina, astelehenean, irailak 12, hasiko dituzte. Aipagarrien artean, dantza eta masaje ikastaroak.

Aerobik, gimnasia eta erretiratuendako gimnasia ikastaroak irailaren 12an, astelehena, hasiko dituzte.

Gainerako ikastaro guztietan izena emateko epea irailaren 16an, egubakoitza, bukatuko da.

Yoga eta masaje ikastaroak Jose Luis Armendiak eskainiko ditu. Astelehen eta eguaztenetan

izango da yoga ikastaroa, 17:00etan edo 19:00etan, Olaranen. Hileko kuota 16 euro izango da, eta 30 euroko matrikula ordaindu beharko da, fidantza moduan. Masaje ikastaroa, berriz, eguaztenetan izango da, 19:00etan, irailaren 29tik abenduaren 22ra. 35 euro ordaindu beharko da.

Tai Chi ikastaroa ere izango dugu, urriaren 4an hasita, mar-

titzen eta eguaztenetan, 18:00etatik 19:00etara. Hileko kuota 20 euro izango da; beste 20 euro, berriz, fidantza. Oskar Torresek eskainiko du ikastaro hori.

DANTZAK ETA ESKULANAK

Edurne Uribesalgok eskulan ikastaroa eskainiko du, urriaren 6an hasita. Eguaztenetan izango da, 15:15etik 17:15era, Olaranen. Prezioa, 90 euro.

Marrazketa eta pintura ikastaroan, berriz, Antton Arrillaga izango da irakaslea; urriaren 4an hasiko da eta martitzenetan izango da ikastaroa, 19:00etatik 20:30era. Prezioa, 90 euro.

Azkenik, dantza ikastaroa dugu; zapatu arratsaldeetan izango da, urriaren 8an hasita. Prezioa, 30 euro.

Yoga, masajea, eskulanak, pintura, dantza, Tai Chi aerobika eta gimnasia aukeran



Yoga ikastaroa irailaren 26an hasiko da eta Jose Luis Armendiak eskainiko du.



Tere Sanchezek zabalduko du Arin taberna eta jatetxea

Ekainean Aitz-Garbi taberna itxi zuten, baina, haren lekua beteko duen beste bat zabalduko dute laster, Arin, hain zuzen ere. Tere Sanchezek zabalduko du, datorren hilean; urriaren 13an egingo dute inaugurazioa. Bi urte pasatxo dira azkeneko aldiz ateak itxi zituela; harrezkero, herriko jaietan bakarrik egon da zabalik. Ea, bada, ondo joaten zaion Tereri! /A.I.

LABUR

Antzuolako Udalaren webguneak baserrien gaineko atal berria dauka

Atal berri batekin datorrigu Antzuolako webgunea (www.antzuola.com). Baserrien gaineko atal bat gehitu diote Udaleko arduradunek; *Antzuola* atalaren barruan, *Planoak* aukera sakatu eta hantxe aurkituko ditugu herriko baserri guztien argazkiak, auzoka antolatuta. Auzo bakoitzaren planoak ere erakusten zaizkigu.

Gurutz Larreak Euskadiko junior mailako selekzioarekin parte hartuko du Suitzan

Bihar, egubakoitza, Suitzan, Rübliand-eko Sari Nagusia jokatuko du Gurutz Larreak, Euskadiko junior mailako selekzioarekin. Elorriaga, Gonzalez, Lapazaran, Leanizbarrutia eta Morras izango ditu taldekide. Bestalde, aipatzekoa da udan ere lan bikaina egin duela. Abuztuan, Ergobian, irabazi egin zuen. Aurreko asteko domekan, berriz, bosgarren geratu zen, Lierniako igoeran.

Frontoia askotan itxita topatzen dutela eta, herritar batzuek euren kexa azaldu digute

Hainbat herritarrek euren kexa azaldu digute abuztuan zehar, behin baino gehiagotan, goizean pilotan jokatzerara joan eta itxita egon delako frontoia. Udalean azaldu digutenez, urtean zehar Olalde elkarteak arduratzen dira frontoia zabaldu eta ixteaz. Abuztuan, berriz, Udaleko langileak arduratu dira zabaltzeaz eta boluntario azaldu zen herritar bat, berriz, frontoia ixteaz.

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

SUKALDEKO ALTZARIAK

Harizki

MUEBLES
IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

Goibekokale

ELGETA / Eguena / 2005eko irailaren 8a / 237. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Frontoiko lanak aurrera doaz eta aurki teilatua arekin hasiko dira

IRATI AGIRREAZALDEGI


Hilabete eta erdian pilotaleku-ko berritze lanekin jardun dute hainbat langilek. Besteak beste, ate berri bat ireki dute eta tabernatik frontoirako atea itxi. Teilatuko uralita kentzeko baimena jaso bezain laster, berriz, teilatua berritzen hasiko dira.

Uztaileko azken astean hasi zituzten pilotalekua berritzeko lanak, eta, hilabete eta erdi pasatuta, hainbat lan aurreratu dituzte.

Pilotalekuaren atzeko aldean, Elorriorako bidearen kontrara ate bat ireki dute horman. Ate horrekin ibilgailuen sarrera erraztu nahi dute. Besteak beste, telebistako tresneria edo konponketarako makinak sartzeko.

Atea zabaldu ostean, inguru hura urbanizatu egin behar dute. Hainbat oztopo izan dituzte saihesbideko obrak direla eta, baina ados jarri dira eta aurki hasiko dira lanak. Espaloia kendu eta eskailerak eta ezinduendako aldapa ipiniko dituzte; baita 12-15 ibilgailu-erendako aparkalekua ere.

Pilotaleku barruan, berriz, tabernarako atea itxi egin dute eta beste bat egiten dihardute.



Ibilgailuen sarrera errazteko atea egin dute pilotalekuaren atzeko aldean.

KOMUNAK ETA TEILATUA

Bolatoki tabernan hainbat berrikuntza egin dituzte. Beheko komunak ezinduendako egoki-

tzen dihardute, eta azulejoak eta aparatu sanitarioak ipintzea baino ez da falta. Biltokian, berriz, pilotalekurako sarrera izango

Pilotalekua itxita egon arren taberna eta beste kirol instalazioak zabalik daude

duten komunak ipiniko dituzte, baita galdara gela ere. Beraz, tabernako jangelan egongo dira pilotalekuko komunak.

Pilotalekuko berrikuntzarik nabarmenena teilatua konponketa da. Oraingoa uralitazkoa izanik, baimen bereziak behar dira teilatua kentzeko, material arriskutsua baita. Baimen horiek noiz jasoko zain daude, teilatuko lanekin hasteko. Teilatua pilotalekuan baino ez dute aldatuko; kiroldegiko gainontzeko instalazioetan konponketak baino ez dituzte egingo.

Lanak direla-eta pilotalekua itxita badago ere, herritarrei jakinarazi nahi zaie Bolatoki taberna zabalik dagoela eta kiroldegiko beste instalazioak ere erabil ditzaketela. Lanak direla-eta itxi egin behar balira erabiltzaileei, aurrez esango liekete.

LABUR

Kirol jarduerak koordinatzeko taldearen bilera

Kirola sustatzeko eta kirol jarduerak koordinatzeko taldea sortu dute, eta jadanik hasi dira lanean. Datorren astelehenean, irailaren 12an, elkartuko dira kultura etxean, 19:30ean. Besteak beste, euren asmoa da datozen hiru hilabeteetarako kirol programa gertatzea.

Bi ikastaro izango dira irailan KZgunean

Irailen bi egunetan egongo da irakaslea KZgunean: hilaren 14an eta 28an, goizez, 09:00etatik 11:00etara. Bi egunotarako mintegiak antolatu dituzte. *Etzetik eros ezazu* lehenengo egunean eta *Neus* programaren gainekoa bigarrenegunetan. Ikastaroak 11:00etatik 13:00etara izango dira.

Yllana taldearen '666' obra ikusteko sarrerak salgai

Urriaren 14an antzeztuko du Yllana taldeak *666* obra Espaloian. Salgai ipini dituzte sarrerak kafe antzokian. Sarrera arruntek 12 euro balio dute eta bazkideenek hamar. Bestalde, zinema saioek aurrera jarraitzen dute. Hurrengo filma *Cliente muerto no paga* izango da eguaztenean, 21:30ean.

Tortilla lehiaketan parte hartzeko izenematea zabalik

Datorren irailaren 17rako antolatu dute gaztetxeok, urteroko ohiturari jarraituz, Sagardo Eguna. Bederatzigarren edizioa izango da aurtengoa, eta egun horretako tortilla lehiaketa ere usadio bihurtzen ari da. Lehiaketan parte hartzeko irailaren 16a baino lehen eman behar da izena liburutegian edo Haizean.



Sei ume aurten Haur Eskolan

Ikasturtea hasi da haur eskolan. Bost hilabete eta urtebete arteko sei ume izango dira bertan, Jone Egaña eta Lorea Gurrutxaga irakasleekin. Hala ere, hasieran Miren Samaniegok jardungo du Lorearen partez. 08:00etatik 17:30ak artekoak izango da hasierako orduetgia; ondoren, 07:30etik 18:30era bitartekoa. Haur eskolan izena eman nahi dutenek oraindik badute horretarako aukera; Herri Eskolan dagoen gelara joan beharko dute irailaren 19tik 30era bitartean. /I.A.

UR ZERBITZUA



Abuztuaren 31n hasi ziren Uriartera ura eramateko azken faseko lanekin.

Urrirako ura Uriarte auzoko baserrietara

Uriarte auzora ura eramateko lanak aspaldi hasi zituzten; baina obren hirugarren eta azken fasea abian da, eta urriaren erdirako amaitzea espero dute. Orduan, Uriartereko 13 baserrietara herri erdira besteko kalitatearekin iritsiko da edateko ura.

Abuztuaren 31n hasi ziren Uriarte auzora ura eramateko lanen hirugarren faseko obrak. Aldi honetako lanak amaituta sei baserri gehiagora iritsiko da ura: Oleiko lau baserrietara; Iribeituriagara eta Aranburura.

Lanak 69.178 euroko kostua izango dute eta Mendi Nekazaritza, Ur Partzuergoa, Udala eta

baserriarrak arduratuko dira ordainketaz.

Uriartera ura eramateaz gain, suteak daudenean erabili ahal izateko sute ahoak ipiniko dituzte baserri bakoitzean; baita mangelak ere; azken horiek zehaztu gabe dago baserri guztietan edo gune batzuetan ipiniko dituzten.

URA 13 BASERRIETARA

Lanak urriaren 15era amaitzea espero dute; eta hirugarren fasea eginda Uriarte auzoko 13 baserrietara herrira iristen den kalitate berarekin iritsiko da edateko ura.

Bestalde, Udala aztertzen ari da ur arazoak izan ditzaketen beste auzo batzuetan lanak egitea. Izan ere, Goimendira lau aldiz eraman dute aurten ura.

GARRAIOA

Uda aurreko ordutegia du gaurtik aurrera autobus zerbitzuak

Ikasturte berria hastear den honetan, autobus zerbitzua ohiko ordutegira bueltatu da; uda aurrekoa, alegia. Pesak eskainiko du zerbitzua eta ohiko erabiltzaileek bonua eskura dezakete udaletxean, merkeago bidaiatzeko.

Udako aldaketaren ostean, Bergarara eta Arrasatera joateko autobus zerbitzuen ordutegia uda aurrekoa da, berriz ere, gaurtik aurrera.

Zerbitzua, orain artean bezala, Pesa enpresak eskainiko du:

Elgetatik Bergarara joateko 07:40an, 11:45ean eta 14:55ean irtengo da Ozkarbi elkarte partetik. Eta 11:45eko autobusa Arrasatera joango da.

Bergaratik Elgetara etortzeko, berriz, 11:30ean eta 14:40an egongo dira autobusak Bergarako geltokian.

BONUAK

Autobus zerbitzu hori eguneroko edo sarri erabiltzen dutenei bonua eskuratzeko gomendioa egiten

ELKARRIZKETA

ALAINE GARTZIA ETA IMA IGARTZA /EGUNEKO ZENTROKO ERIZAINAK

“Herriko jendea ez da zentroa etortzera ausartzen”

I.A.

Iaz azaroan Eguneko Zentroa zabaldu zutenetik dihardute lanean bi elgetar hauek. Adineko lau lagun dituzte euren kargu. Alaine eta Ima zentroaren funtzionamendua azaldu eta elgetarrei bertara joateko gonbita egin diete.

Nolako da egun bat Eguneko Zentroan?


Ima: Adinekoak goizean etorri ahala egunkaria irakurtzen dugu denondako, eta bertako gaiez berba egiten dugu. Ariketa ezinbestekoa da elkarrekin harremanak izateko. Ondoren, denak komuna joaten dira; eta gero bakoitzak gustuko duen jardueran pasatzen du goiza: margotzen, paseatzen, hitz gurutzatuak egiten... Ondoren, asteko egun bakoitzean bat dutzatzen dugu; horretarako, egokitutako dutxa bat daukagu. Bertan bazkaltzen dute gero, eta, ordubeteko atsedenen ostean, berriz ere eskulanean, jolasean... ibiltzen dira.

Zein da zuen eginbeharra?

Alaine: Ez daukagu jokatzeko arau zehatzik, eurek nahi dutenera egokitu behar dugu. Adinekoak zaintzea da gure lana, eta ahal den neurrian ulertzea. Eurekin hitz egitea ere oso garrantzitsua da. Ez dugu nahi zentroa indarrez etortzea, beraz, gure lana da gustura sentiaraztea.

Eguneko Zentroaz gain, zein beste zerbitzu daude?

Ima: Elgetan badago hona etor daitekeen jendea, baina ez dira ausartzen. Bakarrik daudenak etor daitezke, esaterako, bazkaltzera. Bestalde, zentroan hiru



I.A.

Baldintza berezirik behar da zentroan sartzeko?

Alaine: Gizarte laguntzailearengana joan eta hark aztertzen du bakoitzaren beharra zenbaterainokoa den. Elgetan, beharra duen jendea dago, baina badirudi beldurra ematen diola etortzeak.

Ima: Jendea ez da konturatzen horrelako zentroetan garbitasuna, osasun eta sendagaien kontrola egiten zaiela; eta horretaz gain, konpainia egiten diegula bakarrik daudenei.

“Adinekoak
zaintzea eta haiei
ulertzea da zentroko
erizainon lana”

gela daude bere kabuz moldatzeko gai izan arren etxean bakarrik bizi direnendako; horrela zaindu egingo genituzke, gainera.

IRTEERA

Erretiratuaren txangoa Bizkaia eta Arabara

I.A.

Kutxa antolatuta irailaren 14an irteera izango da erretiratuendako. Bizkaian Enkarterrietan barrena ibiliko dira eta Araban, berriz, Aiara bailaran.

Elgetan abiatu eta Balmasedara joango dira lehenengo. Bertan hamaiketako egin eta ondoren herrian barrena bisita gidatua izango dute.

Gero, Arabara igaro eta Aiara bailaran Salbada mendizerraren eta Gorbeia Parke Naturalaren paisaiez gozatuko dute.

Artziniegara iritsita, alde zaharra, museo etnografikoa eta Artekoko Andre Maria santutegia bisitatuko dituzte.

BAZKARIA ETA MUSIKA

Kexaa herrian bazkalduko dute gero, XIV. mendeko jauregi batean, eta bazkalostean musika saioa izango da.

Arrespalditza herrian amaituko dute eguneko bisitaldia.

Irteera horretan parte hartu nahi dutenek Kutxaren bulegoan eman behar dute izena eta 36 euro ordaindu.

Oñati

OÑATI / Eguena / 2005eko irailaren 8a / 17. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05



Besteak beste, Oñatiko azken zazpi txokolate enpresetako estalkiak daude ikusgai txokolatearen gaineko erakusketan.

Txokolate usaina izango du herriak irailean ere

OIHANA ELORTZA

Txokolate usaina ohi baino handiagoa izango da irailean Oñatin. Klaxk Txokolatearen Elkarteak Artisau Txokolatearen Nazioarteko I. Azoka antolatu du hurrengo asterako, irailaren 15etik 17ra.

Mundu osotik etorriko diren 21 lagunek txokolate artisauen erakusketa egingo dute hilaren 17an herriko plazan. Argentinatik, Tolosatik, Huescatik, Ourensetik, Miarrizetik, Valentziatik

eta Mexikotik etorriko dira, besteak beste, artisauak.

ARGIÑANO ETA GORROTXATEGI

Txokolate eta bonboiak ez ezik, kaxak, txokolate ontziak eta kakao gurinarekin egindako kremak ere ekarriko dituzte, adibidez. Gainera, Eva Argiñano eta Jose Mari Gorrotxategi gozogleek txokolatearekin egindako errezeta lehiaketan hartuko dute parte beste sukaldari eta txokolategile batzuekin batera.

Bezperan, txokolateaz mintzatuko dira medikuak, kirolariak, dietistak eta gozogileak.

TXOKOLATE ERAKUSKETA ZABALIK

Bestalde, gaur, eguena, txokolatearen gaineko erakusketa zabaldu dute kultura etxean. Oñatiko azken zazpi enpresetako txokolate estalkiak, argazki zaharrak, kakao ekartzen zuten galeoi baten maketa, fakturak eta txokolatea egiteko ontziak daude ikusteko. Irailaren 17ra arte dago zabalik.

LABUR

Jaietako pegatinak ateratzeko lelo lehiaketa egin du aurten ere Laixanek

San Migel eta Errosarixo jaietarako 4.000 pegatina atera nahi ditu aurten Laixanek, eta hilaren 18a arte dago zabalik lelo lehiaketa. Herriko hainbat tabernatan kaxak eta bete beharreko paperak jarri dituzte. E-postaz ere bidal daiteke leloa. 60 euro da saria.

KIROLA-FUTBOLA

Aloña Mendi lehena preferenteko ligan

O.E.

Ondo hasi du denboraldia preferente mailako Aloña Mendi taldeak. Orioren aurka jokatu zuen domekan ligako lehen partidua, Azkoagainen, eta irabazi egin zuen. Sei gol sartu zituen, eta horrenbestez, preferente mailako liderra da Aloña Mendi. Mon-


dra dago bigarren, hura ere hiru punturekin. Aretxabaletak ere maila berean jokatzen du, baina ez zuen punturik lortu.

PASAIA

Aitor Oruetaren mutilek Pasaiako jokatu dute 2005-2006 denboraldiko bigarren partidua, datorren astean.



Aurre-denboraldian ateratako argazkia.



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzo s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

Ariznoa gimnasia erritmiko taldea



Irailaren 19an gimnasia erritmikoko denboraldia hasiko da. Kirol polit honetan interesatuta dauden 4 urtetik gorako neskek, dei dezatela telefono honetara informazioa jasotzeko: 943 76 56 75 (Jabi).

Klaseak BERGARAn:

Hasierako maila I: 4-5-6 urtekoak. Eguazten eta egubakoitzetan 17:00etan


Hasierako maila II: 7 urtekoak. Eguazten eta egubakoitzetan 17:45ean

Benjaminak: 8-9 urtekoak. Astelehenetan 18:00etan eta eguaztenetan 18:30ean

Lekua: Boni Laskurain pasealekuko Aranzadi ikastolako gimnasioan

Klaseak ANTZUOLAn:

Martitzenetan 16:30ean eta eguaztenetan 14:30ean



Aupa neskek, anima zaitezte! Zuen zain gaude!


Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Jantzitegi apal tolesgarriekin



Zoru aukera zabala
Tarimak
Parket flotatzaileak, bernizatuak
eta estratifikatuak



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



**AZKARATE
AROSZTEGIA**

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



GRUPO RKUZ

1950
Zure etxea da
2005



GRUPO RKUZ
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
MUGURLES ALTZARIAK

Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



GRUPO RKUZ
SUHALDE INTEGRALA

Mitarre 3
FAGOR Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

GRUPO RKUZ
ELEKTRAGAILUAK

expert Andramari auzunea
Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA